


TRIKUA ESNATU DA

Euskaratik feminismora eta feminismotik euskarara

Lorea Agirre Dorronsoro, Idurre Eskisabel Larrañaga
Lisipe 7, Susa-Itxaropena, 141 or.
Donostia, 2019

Pentsamendu saiakera den liburu honen mamia aberatsa bezain sakona da. Azken urteotan kritika feministak ondu dituen tresna kontzeptualak euskaltzaletasunaren diskurtsoa eraberritzeko premiarekin uztartzeko ahalegina dago, fokuratze berri oso baten proposamen integral batekin plazaratzeko. Gaurdaino, euskararen afera nagusiki euskaltzaletasunaren eremura loturik ezagutu badugu ere, feminismoen kritikan erabilitako tresna diskurtsibo zein epistemologikoa aberatsa egin zaie; izan ere, fokuratze berritzaile horren ardatzean subjektuen arteko posizio subordinatuaren inguruko hausnarketa sakona dakarte bi egileek. Euskal hiztunaren subjektua eta feminismoen subjektua elkarrekin josteko saiakera distiraz bete da liburu honetako orri marduletan. Egungo egoera eraldaketa bidean, konplexutasun paradigmaren begirada lantzen dihardute irmoki, kritika feministaren ekarpenak gurera testuingururatu eta euskalgintzaren eta feminismoaren arteko gurutzaketa bideak sakonki arakatu. Izan ere, harreman sare konplexuan uler liteke menderakuntza prozesuak eta botere harremanak subjektu ezberdinen menderakuntzan gurutzaturik gertatzen direla, eta hizkuntzaren kasuan berdin, komunitate praktikak zein berdintasunaren borrokak, txirikordaturik bizi ditugu, jendartearen, hizkuntzaren eta generoaren arteko mataza berean.



1. irudia. *Trikua esnatu da* argitalpenaren azala.

Euskaltzaletasunaren eta feminismoaren arteko loturak ulertzeko lehenik eta behin «naturalizazioaren» kontzeptua erabili dute bi egileek, berau, feminismitik deseraiki baita ondoen. Naturalizazioa, zapalkuntza gauzatzeko modurik behinena denez gero, suntsipen handiko armatzat jo dute, bai emakume bai euskaldunarentzat. Angela Davisen zapalkuntza hirukoitza giltzarria zaie abiaburuan: arraza, klasea eta emakumea izateagatiko zapalkuntza, hain zuzen. Orain bai, zapalkuntza horrek ba ote du parekorik hizkuntzaren menderakuntza kasuan? Baietz esan beharko dugu zeren euskararen historia sozialak erakusten digu hizkuntzari leporatu zaizkion gutxiesgarriak zein desgaitzaileak ez direla gutxi izan. Euskarari publikoaren eraikuntzarako baliorik ukatzea, edo erabilera kaskarraren leporamena haren plastikotasunik ezari aitortzea, hizkuntza horri eman nahi zaion prestigiorik ezaren eta zapalkuntzaren adibide izan dira historian, eta oraindik orain, borroka horretan dihardugu.

Urrats bat harago, bi egileek erakutsi dute jendartea, hizkuntza eta generoa hertsiki loturik daudela, halaber, elkarren arteko elkarrekintzan eraikitzen direla. Hizkuntzarekin jendartea eraikitzen badihardugu, jendartearen egiturek, dinamikek eta balioek praktika linguistikoa bera baldintzatzen dute. Bada, komunitate baten hizkuntza praktikak bere jendartearen ispilu bihurtzen dira; izan ere, hitz egiteko hautua, norbanakoa bezainbeste, inguratzen duen testuinguru sozial horren ondorioa ere izaten da. Alegia, menderakuntza egoera, hizkuntzagatiko pribilegio eta botere erdigunetik kanpo gelditzen den hizkuntza gutxiagotuaren hiztunak pairatzen du, gurean, euskararen ardaztua bizitzeko aukera kontzientea egiten duen hiztunak.

Hortaz, euskalgintza eta feminismoa eremu bereko ahizpak direla azaldu dute. Nahiz eta bi borrokek orain arte ez duten elkar ukitu, elkarrekintza bilatzea, aurrerabiderako aliantzak sortzeko ezinbestekotzat jo dute. Zeren emakumea izan, edota euskal hiztuna izan, biak ere, jendartean duten lekua bazterrekoa da, subjektu azpiratuak bihurtzen dira. Euskalgintzaren indargunean baina, balioan jarri dute taldearen balioa eta kolektiboaren babesia. Gaur, funtsezkoa da jarrera hori, berdintasunaren aldeko borroka hautu indibidualista eta hiperliberala bihur ez dadin. Izan ere, egungo subjektibotasuna eraikitzeke moduak norberak bere burua eraikitzeke desioarekin bat etorri behar duela erakusten ari zaigu; eta subjektibotasun eraikuntza hori nahi izatean datza. Bi borroken subjektuak, subjektu euskaltzalea eta subjektu feminista, menderakuntzaren subjektu direnez gero, gurutzaturik daude eraikuntza nahiaren desioan, haatik, bi prozesuen arteko topaketa eta bien aurrerabidea da jokatzeko dena subjektibotasun berrietarako eraikuntzan. Euskara eta generoa, euskaltzaletasunaren eta feminismoaren arteko aliantzek aurrerabide horretan jartzeko gaituzte.

1. Hizkuntza mina

Nola txertatzen da hizkuntzaren auzia zapalkuntza hirukoitz horretan? Hizkuntza minaren genealogia bat eginez gero, galera horren ondoreza agerikoa da. Izan ere, hizkuntza izate kolektiboaren ezinbesteko argamasa izateaz gain, euskal komunitatea ardazteko hautua egiten duen jendetasunaren elementu zentrala ere bada, giza izatearen muineko osagaia. Bada, hizkuntza galerak mina sortzen

du. Min hori, taldekoa ez ezik, norbanakoak bere baitan daraman mina ere bada. Hizkuntza mina horren aurrean teoria feministatik eratorritako lau lotuneko bidea proposatu dute bi egileek. Lehen mailan, jakin mina izatea, min bat badela onartzea, min hori gure barruan ere badugula begiratzeko indarra izatea, min hori identifikatu eta geroago minaz jabetzeko; bigarren mailan min hori, betiere, eraso bat dela azaldu dute, bortxa. Agian izenik jarri gabeko mina izango da oraindik, ezin izatearen mina, baina norbere buruaren ukazioraino eraman zaitzakeena. Min horren aurrean azpiratzea noiz eta non gertatu zen jakiteari beharrezko deritzote eskubide urraketa jabetza bidean. Hirugarren lotunean ahalduntzea kokatu dute, bortxaren jabetza izan ondoren erantzuteko gaitasuna emango digun tresna multzoa osatzen balio diguna: zer egin, nola egin, nora jo. Alajaina, ahalduntze bideak bokazio kolektiboak du. Laugarren mailan boteretzea kokatu dute, osotasuna inpugnatzeko bokaziotik sortua baita, jendartea eraldatzeko proposamen integrala izateko bokazioa, haatik, soziopolitikoak da. Boterea beste modura pentsatzeko eta banatzeko, bestelako botere banaketa erdiestea jomugan izaten du.

Zer esaten digu bada lau lotuneko bide honek euskal hiztun garen neurrian? Nahiz eta euskararen diskurtsoan beti izan den kontzientziaren eta eskubideen diskurtsoa, feminismoak euskaltzaletasunari dakarkion berrikuntza da, hori guztiori gorputz berean txertatzen duen lekua dela. Ez da gorputz biologikoa baizik eta subjektuaren lekua da, subjektu euskaltzalearen lekua ere bada, gorputz berri bat eraikitzeko.

Feminismoaren arrakastaren parte bat subjektibitate berrietara ondo egokitzen den diskurtsoa izatean datza, eta euskalgintzaren egungo sakoneko arazoa, hain zuzen, arlo diskurtsiboan dagoela azaldu dute bi egileek. Eta azaldu dute, hamarraldi batzuk atzerago eraturako zoru diskurtsiboaren gainean dabilela egungo euskaltzaletasuna; haren diskurtsoa ez zaio behar bezala doitu azken urteetako mundu eta pentsamendu itzulikatze handiari. Halere, lehen bezalaxe, gaur ere, euskaraz bizitzeak, berez datorren ohitura sozial nagusien kontrako hautua izaten jarraitzen du, eta ahalegin horrek, zentzua eta balioa emango dion diskurtso kontra hegemoniko indartsu baten premia larria du.

Feminismoak ez du borroka kolektiboaren zantzua galdu, identitate auzi bat dena demokrazia eta justizia sozialaren auzi bihurtu baitu. Gai izan da norbanakoaren nor izatearen eta izate kolektiboaren uztardura egiteko, banakoaren erabakimen gaitasuna erdigunean jartzeko. Begirada hori hizkuntza gatatzari begiratzeko interesgarritzat jo dute oso. Hizkuntzaren hautua nor izatearen ardatzeko den neurrian eta identitatearen eraikuntza boterearekin lotuta dagoen neurrian, auzi politikoa bihurtzen da, botere eta pribilegioen banaketa nolakoa den azalera ekarri eta banakoa interpelatzerainoko auzia. Zoru diskurtsiboa berritzeko feminismoan ideia, esanahi eta praktika multzoak esku-eskura dauzka euskaltzaletasunak.

2. Interseksionalitatea

Interseksionalitatea gurutzaketaren ideia dela azaldu dute bi egileek, gurutzaturik eta elkarri txirikordaturik baitaude biak, hots, «ez da orain normalizazioari helduko

diot eta bihar generoari» biak batera daude. Menderakuntzaren konplexutasuna argira ekartzeko balio du, menderakuntza askotarikoen lotura sareak arakutzen baititu. Kategoria asko estuki gurutzatzen diren lekua dugu (generoa, jatorria, klasea, hizkuntza...). Izan ere, desberdinkeria ardatz horiek harremanetan daude eta menderakuntza prozesuetan modu konplexuan elkarri loturik azaltzen zaizkigu. Interseksionalitatea begirada kokatu eta errotu batetik aplikatuz gero, botere harreman eta pribilegioak ezbaian jartzeko tresna bihurtzen da.

Bi egileek, interseksionalitatea, ahalduntzeko tresnatzat jo dute. Menderakuntza askotarikoen gurutzaketan begiratzea eta hortik lan egitea litzateke begirada interseksionalaren premia, haatik, betiere, botereaz dihardu. Begirada interseksionalak konplexutasun osoan ikertzen ditu pribilegioak banatzeko dinamika eta menderakuntza prozesuak. Leku horretatik ahalduntzea ahalbidetzen duen lotune bihurtzen da, menderakuntza prozesuei aurre egin eta botere harremanen sareak interpelatuz. Ahalmen eraldatzailean, norbanakoa ez dago bakarrik, baina norbanakoa bere ezaugarriekin, abagune batean, eta beste pertsona batzuekiko harremanetan da. Kolektiboaren babesa behar du.

Ondoren, interseksionalitatearen zortzi ikasgai azaldu dizkigute, hots: bat, desberdinkeria prozesuak konplexuak dira; bi, menderakuntza prozesuak desberdinkeria askotarikoen gurutzaketan gertatzen dira; hiru, identitate sakonez baino identitate malguez hitz egiten digu; lau, menderakuntza ardatz desberdinak dira baina elkarren artean txirikordatzen dira; bost, aliantzak ezarri behar dira, baina bat nagusigoan jartzea ez da eraginkorra; sei, egoerak esplizitatzeak eta subjektuak izendatzeak berebiziko garrantzia du; zazpi, talde pribilegiatuak interpelatzeko ariketa etengabea egiten du; eta zortzi, egitura hibridoak egokiak dira dinamika berean jartzeko (euskara taldeak, talde feministak, migranteak...)

Interseksionalitatea zeharkakotasunezko praktika bihurtzen da egunerokoan, praktika ez-hierarkizatua, hots, kontraesanen kudeaketan egin behar du lan, batzen gaituena landuz, eta guk aurrera egin ahala besteak ekarriz.

3. Ondorioa

Hizkuntza berri bat mundu berri batentzat behar dugula hala deritzote bi egileek. Erakutsi digute naturalizazioak berdin operatzen duela euskara izan edo emakumea izan, eta menderakuntza horrek eraiki eta zeharkatzen gaituela euskal hiztun gisa ere. Euskalduntasunak sozialki bazterreko bihurtzen bazaitu, indibidualki gutxiagotasun linguistikoa barruraino sartuta dugula ikusten da; izan ere, pertsonalki zein talde bezala bietan baikara menderatuak. Baina menderakuntza horrekiko ahalduntzeak egiten gaitu, hau da, euskaldun izatetik euskaltzale izatera edota emakume izatetik feminista izatera, kontzientziak, hautuak, ahalduntzeak, boteretzeak garamatza. Erabakimen eta bizitza burujabearen galeraren aurkako borroka guztiak lotuta daudenez gero, bertan kokatzen da hizkuntzen auziaren borroka ere. Bai euskalgintza bai euskararen auzia, erabakimen eta bizitza burujabearen galerarekin estuki loturik dago.

Jakin badakigu, gure bizi egitasmoak, desirak, hezurdura emozionala, identitateak, kontsumoaren bidez asebetetzen dituela egungo merkatuak, hala azaldu digute. Kontsumoak egiten gaitu nor. Kapitalismoaren aldaera muturrekoak bizi gaitu neoliberalismoaren gidaritzapean. Mundu globalak norbanakoen homogeneousazioa, bizi praktika eta desirak berdintzea du jomugan, mundu total eta totalitarioaren bidean. Mundu horretatik kanpo ez dago beste izateko aukerarik. Neoliberalismoaren amua identitate askotariko, aukeragarri eta aldagarrien eskaintza da, baina sakonean, izateko modu bakarraren aukera dago, subjektibotasun bakarra eta norbanakoaren merkantilizazio erabatekoa. Subjektibotasun neoliberalak berdindu eta zeharkatzen gaitu, zentzu emateko eredu berdindu baten atzetik, bestelakotasuna ezabatzea baitu amets. Izan ere neoliberalismoari ez zaio interesatzen taldea, kontsumoa ez den norbanakorik; alderantziz, norbanakoak sustrai gabea, kolektiborik gabea, fragmentatua, isolatua behar du. Subjektibitate neoliberalak norbanako erabat ordezkagarriak ekoiztea du amets.

Hizkuntzaren auzia eta hizkuntza gatazka bete-betean lotzen da mundu total horren aurkako borrokekin. Hala azaldu dute bi egileek. Horren aurrean diferentziak gordetzea, zirrikituak eratzea eta sare komunitarioen berreskurapen eta birsorkuntza behar-beharrezkoa zaigu, hizkuntza normalizazioaz harago mundu berdinzaleago bat sortzea jomugan. Neoliberalismoari galga, herri garapenak jarriko baitio, hizkuntzak eta kulturak. Erro kulturaletik abiatutako komunitategintza da beharrezko. Norbera nor izatean ardazten den komunitategintza. Auto-errekonozimendua zilegitzeko posibilitatea emango duena, hots, errekonozimendua gauzatzeko aukera.

Jexux Larrañaga Arriola

